



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Igandea  
2008-05-11**

VI. URTEA 1.431. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Berrobin agur esan eta Iruran ongietorria egin diote kulturari

**TOLOSALDEA** Kultur asteak ospatzen ari dira bi herrietan; Berrobin gaur izango da azken eguna 4



L. GARCIA

**PATXI URIZAR** DUATLOILARIA

«Duatloian ez da gazte asko ikusten; ez dago ohitura handirik»

**VILLABONA** Bigarren aldiz jarraian distantzia luzeko Euskadiko Txapelketa eskuratu du 7

## «Gogor» salatu dute AHTren inguruan «EAJk duen jarrera»

**ZIZURKIL** «AHTren lanak egiteko zundaketak egin direla» salatu zuen ezker abertzaleak 4



Adnan Dalhik eta Saadbuh Hamadek Sahararen aldeko plaka agerian utzi zuten, berrinaugurazioan. N. GARZIA

## FRONTE POLISARIOAREN 35. URTEURRENA GUREAN OSPATZEN

**TOLOSALDEA** 'Maiatza borrokan' jardunaldiei atzo ekin zieten Tolosan saharar herriarekiko elkartatasun plakaren berrinaugurazioarekin 5



Maiatzaren 18an XIV Orduetako ibilaldia

Ibilbidean zehar ateratzen dituzuen argazkiak bidali HITZara eta hilaren 23ko alean argitaratuko ditugu.

Argazki onena saritu egingo dugu!

bidali zure argazkia!



HITZA argazki lehiaketa

Argazkiak tolosaldean@tolosaldekohitza.info-ra bidali

## K Komikia

## Gorka Salaberria

B Blogteka info**Fronte polisarioak  
35 urte**

Maitzak 12, (bihar) astelehena 19:30ean, Tolosako Kultur Etxean, Presoeta desagertu Sahararren ordezkariaren hitzaldia izango da, *Maitza borrokan* jardunaldien

baitan antolatu den lehen hitzaldia, hain zuzen ere.

Preso, torturatu eta desagertu Sahararren senideen elkarteko ordezkari, Mohamed Laabeid-en hitzaldia entzuteko parada izango dugu bertara hurbiltzen garen guztiak. Marokoko indar arma-

tuek Mohamed beraren arreba bat desagertarazi zuten duela hainbat urte eta harez geroztik bere berri gehiagorik izan.

Baina, zoritxarrez, ez da kasu bakana eta aste honetan bertan SEAD-en (Saharar Errepublikako Arabiar Demokratikoaren) Ara-

bako lagunuen elkarrekin argitaraturiko txosten batek salatzen duenez, Mendebaleko Saharar zibil babesgabeen aurkako giza eskubideen urraketek ez dute etenik izan Marokok lurraldea ilegalki okupatu zuenez geroztik. Arabako lagunuen txostenak datu ze-

hatzak aipatzen ditu, desagerturiko 521 zibilez gain, 151 gerra preso eta emakumeek pairatzen dituzten era guztietako laidoak bereziki salatzen ditu.

**Harea eskuetan**

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/sahararekin>

## H Hilberriak

**AMETS AIZPURUA AGIRRETXE**

Gazte joan haiz, Amets  
Hire ametsak  
gurea izaten jarraituko dik



Zumaia  
2008ko maiatzaren 11

**AMETS AIZPURUA AGIRRETXE**

Mendia zenuen maite  
itsasoa bezain beste  
momentu ederrak eman dizkiguzu  
tristurak barne  
hemendik joan zara  
baña gure bihotzetan zaude  
ondo ibili  
hurrena ikusi arte



Saioa, Lierni, Munia, Enki, Izaskun, Edurne,  
Eneritz eta Joseba, Itziar, Aitzol, Arlette, Jon,  
Iñaki, Olatz eta Haizea.  
**IBARRALDEKO HIRE LAGUNAK!**

ZUMAIA  
2008ko maiatzaren 11

**AMETS AIZPURUA AGIRRETXE**

Beti gogoan izango dugu  
zure irribarra



Auzokideak

ZUMAIA  
2008ko maiatzaren 11

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**902 402 900**  
zerbitzu iraunkorra

**BULEGOAK:** Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasaja Tolosa (Bellatokia)

## S Soka motzean

### «Jendea ezagutzea du korrika egiteak eta bertsolaritzak»

**ARITZ GARIN**

Korrikalaria eta bertsolaria

**IMANOL GARCIA**

Bertsolaritza eta lasterka aritzea barruan sartuta ditu Aritz Garinek (Zizurkil, 1989). Egun Villabonan bizi da.

**Gasteizen ari zara ikasketak egiten. Zer ari zara ikasten?**

Magisteritza, heziketa fisiko eta espezialitate.

**Zer du bertsolaritzak zuretzako?**

Lagunak egiteko leku bat eta espresatzeko modu bat.

**Eta korrikan egiteak?**

Jendea ezagutzea ere eta kirola egin eta ondo sentitzea.

**Momentu bat bertsolari bezala?**

Azken Gipuzkoako Txapelketa Nagusian parte hartzea. Pentsatzen nuen zaila izango zela baina gustura gelditu nintzen.

**Korrikalari bezala?**

Infantiletan, 2003an, Kroseko Gipuzkoako Txapelketa irabaztean.

**Bertsolari bat?**

Egaña eta Arzallus.

**Korrikalari bat?**

Kenenisa Bekele eta Haile Gebrselassie.

**Bertsolaritza edo korrika egitea aukeratu behar izanez gero?**

Ezin izango nuke aukeratu. Korrikarena gehiago ikusi dut etxean, baina zaila da aukera egitea.



AIURRI

## Etika



» **Iritzia**

**Andu Martínez de Rituerto**  
Uzturretik

**P**asa den igandean bi alaba zaharrenak lehenengo jaunartzea egin zuten. Besteen artean, sinesmenarekin, fedearrekin, lotu ohi dugu ekintza sinboliko hau. Ni agnostikoa izanik, nire ikuspegia azaldu nahi izan nien; bere buru gazteak ahalik eta gutxien nahasteko ahaleginean, halaxe esan nien: jaunartzearen alderdirik garrantzitsuen, niretzat, hemendik aurrera hartu duzuen konpromisoa da; lagunak eta lagunak ez direnak errespetatzea, elkarri laguntzea, inor ez mesprezatzea eta inori trufarik ez egitea, bestearen lekuan jartzen ikastea eta besteen arazoak ulertzen saiatzea, zintzotasunez jokatzea finean, besteengandik gurekiko jaso nahi genukeen tratua lagun

hurkoei ere halakoxea ematea hain zuzen. Horiek baitira niretzat bizikidetzaren oinarriak.

Baina oinak lurrera ekarrita, bario etiko horiek nahi erara erabiltzen ditugula ikusten dut. Batzuek ekidistantziaren gaixotasunak jota nagoa pentsatuko badute ere, garbi asko azalduko dizuet uzturreko ikusmira paregabe honetatik ikusten dudana panorama: frogarik gabeko (asmatutakoak ez baitira frogak) kazeten itxierak, jende xume ugari bizkartzainarekin ibiltzera behartuta, herriaren zati handi bat salbuespen lege baten ondorioz isilarazia eta ordezkaritza politikorik gabe, langile bat eraila, semeari Auzirrasera bisitan zihona ama auto istripuz hilda, horren xumea ez den jende andana bizkartzainarekin, zantzurik gabeko atxiloteta ugari eta tortura kasu aunitz, leherketak, benetako preso politikokoak, egoitzak itxia, egoitzak erasotutakoak, gaixoak kartzuletan, hildakoak, kaltetuak, sufrimendua...

Nik ikusten dudana errealitate hau jende askok ikusten duela iruditzen zait. Ez al gara gui izango eromen honi etena emateko eta demontzako irtenbide duin bat topatzeko? Gehienok nahi duguna gutxi batzuk oztopatzen dutelako sententzia da.

## G Gutunak

### Euskal Herria euskalduna

Afrikako pentsamendu zahar baten arabera, esklabo egin izan den herriak ezin du bere hizkuntza galdu; hizkuntza duen bitartean, bere askatasunaren giltza berekin gordetako baitu. XI. mendean, Nafarroako Erresuma homogeneoki euskalduna zen. Antso Nagusiak ezarri zituen euskal estatuaren mugak Nafarroako muga geografiko naturalak. Baina Euskal Herria prozesu politiko nazional baten biktima da, eta prozesu horrek euskararen herria txikitdu du.

Estatu Nafarraren konkista militarra, hartze eta menderatze ondoren, Espainiak eta Frantziak ukatu dizkiote Euskal Herriari beharrezko bitartekoak euskara gordetzeko, belaualdi berriei transmititzeko eta bere iraunkortasuna bermatzeko: eskola eta administrazioa euskaraz eraikitzea; etorkinen uholeak hizkuntz komunitatean txertatzea; euskararen erabilera soziala berregitea jendartean...

Asimilazio politikoa dokumentatua dago: Espainiak XVI. mendean *La lengua siempre fue compañera del imperio*; XVIII. ean *se extinguen los demás idiomas como está mandado* gaztelania bakarrik ezartzeko; XX. ean frankismoak hil egin zuen euskaraz egiteagatik. Frantziak XVI. mendean frantsesa inposatu zuen du bizitza ofizialean, eta XVIII. mendetik aurrera frantsesa da Frantziako hizkuntza bakarra.

Erdarazko asimilazio historikoa

burutu ondoren, "konkista eskubidea" legitimatu nahi dute, orain, Euskal Herria euskalduna eragotzeko. Konstituzioa, euskararen inposamena, "hizkuntz tolerantzia, eta elkarbizitzaren aipamenak tranpak dira. Desberdintasuna oinarrizkoa denean, tolerantziak Euskal Herriaren eta euskaldunen eskubideak zanpatzen baititu, eta sartutako bi erdarak indartzen.

Azken 30 urteotan, politika hori gauzatzeko, estatuek EAJren laguntza osoa izan dute. Euskaldun eleaniztuneko Euskal Herria euskalduna baztertzeko, elebitasun sozialaren mitoa asmatu dute. Politika horrek hizkuntz berdintasuna ukatzen du, ez du hizkuntz gatazka konpontzen, ez asimilaziozko harremanak gainditzen. Defizit hori zuzentzeko, hizkuntza guztien iraunkortasuna bermatu behar da, bakoitzaren nagusitasuna ziurtatuz bere lurraldean. Gaztelaniak Espainian, eta frantsesak Frantziaren, berdintasun printzipio hori bermatuta daukate, baina euskarak ez Euskal Herrian. Horrek hizkuntz eredu aldatzeari eskatzen du Euskal Herri osoan.

Euskararentzako proposamen demokratikoak, gutxienez, aitortu behar du Euskal Herri osoan, ofizialtasun nahikoa, belaualdi berri guztiak euskalduntzeko; euskara hutsezko erabilera ziurtatzeko, euskaldunak %70etik gora diren herrietan; euskal hizkuntz komunitatean berrosatzeko eta normal-kuntza progresiboa zabaltzeko in-

flexio neurriak; bi belaualdietan Euskal Herria euskalduntzeko, hizkuntz ingurune onuragarrian kokatzeko eta bere garapen iraunkorra bermatzeko. Eta hori ez da ezker abertzalearen proiektu politikoa, ez baita Euskal Estatu burujabe, sozialista, euskalduna.

Unescok dioenez kultur aniztasunaren defentsa inperatibo etikoa da, pertsona orori zor zaion errespetutik bereizi ezina. Euskaraz bizi den Euskal Herria berreskuratzea, beraz, egokia, bidezkoa eta guztion garaipena da. Ez da inposamena, guztion lorpen demokratikoa baizik. Ez da prezio politikoa, denok irabazten baitugu askatasun eta berdintasun terminoetan. Ez baita arriskuan jartzen norberak dugun erdara, ezta gaztelania eta frantsesaren osasuna ere dagozkien lurraldeetan. Espainia, Frantzia eta Euskal Herriko herritarren ekarpena da, munduko hizkuntz aniztasunak irauten dezan.

**Inazio Agirre.** Ezker abertzaleko kidea.

### Zizurkilgo Udaleko langileak iritzi publikoari

2008ko apirilaren 14an Osoko Bilkura sonatua ospatu du Zizurkilgo Udalak. Aztertu beharreko azken puntua izan da hautsak harrotu dituen.

Baina bada beste puntu bat langileontzat eta herritarrentzat ere garrantzitsua dena. Osoko Bilkura horretako 2garren puntuan

Udalaren 2008rako aurrekontuak eta 3.ean plantila organikoa onartu ziren.

Plantila organikoan aldaketa nagusi bat: udal eraikinen garbitzeale postu bat amortizatu du udalak, ezintasun iraunkor oso baten ondorioz jada langile ez den kide baten postua. (Hau da, postu hori ez du berriro aterako Udalak. Orain urtebete aldi baterako kontratuarekin pertsona bat dago bestearen ordezkapena egiten eta egoerak horrela jarraituko du).

Udal agintarien esane kasu eginez, horrek ez du eragin zuzenik izango gaur egun langile garenengan: ez omen dute inor kalera bidaliko. Baina ziur gaude gaur egungo udal eraikinen garbitzealeek dituzten lan-baldintzak aldatuko direla.

Orain dela gutxi (bi urte) sinatu zuten alderdiek eta sidikatu bartzu udal langileei dagokien hiztarmena eta, horrekin batera, berriak ere jorratu behar zuten bidearen hainbat irizpide. Horien artean, zerbitzu publikoak mantentzearena. Langileoi zintzotasuna eskatzen digute, hitzarmena interpretatu eta bertatik ez irte-

tea. Agintariak ez ote dute horretarako obligaziorik?

Zizurkilgo udalak ez du ez herritarrei eman behar zaion zerbitzuz gabe pentsatzen, ezta langile subkontratuak jasaten duten prekaritateaz eta esplotazioaz ere. Zer dela eta, zein helburu du horrelako erabakiak hartzea? Erraza da erantzuna: berak egin behar duen gestioa xamurtzea, gainetik kentzea, eta bide batez, alderdiaren boltsa betetzea.

Udal langileok herritarren zerbitzura gaude eta ez interes partikularrek babesteko. Udal langileok ez dugu onartzen, eta ez ditugu onartuko onartuko udalaren jarrerak hauek. Ez dugu onartzen zerbitzuen pribatizazioa, hauek herritarren kalterako eta udalaren erosotasunerako direlako. Ez dugu onartzen pribatizazio horiek langileengan sortzen duen prekaritatea. Gure pisu guztia jarriko dugu zerbitzu publikoak mantentzearen alde, herritarrek merezi duten zerbitzu publiko baten alde.

**Udaleko langileen izenean.**

Zizurkil



# Berrobin agortzen ari den Kultur Astearen lehen tantak Iruran

**Kultura** » Txakolina eta musikarekin amaituko dute Berrobin, Iruran berriz argazki lehiaketa antolatu dute gaurko.

## ASIER IMAZ

Kulturaz eta euriz blai ibili ziren atzo Berrobira eta Irurara gerturatu zirenak. Bi herri hauetan Kultur Astea ospatzen ari dira, nahiz eta Berrobin amaieran izan eta Iruran hasieran.

Atzo mendiaz, musaz, tokaz, magia, bazkariak, eta beste hamaika ekitalditaz gozatzeko aukera eskaini zuten bi herrietako egitarauak. Gaur ere ez dira kultur ekitaldiak faltako.

## Berrobin azken eguna

Gaur amaituko da Berrobiko XVIII. Kultur Astea. Atzo berriz mendiaz gozatzeko aukera izan zuten bi orduko ibilaldi labur bati esker. Arratsaldean Mus eta Toka txapelketak jokatu ziren eta eguna amaitzeko Anjel Magoaren ema-

naldia ikusi zuten Berrobira gerturatu zirenek.

Kultur Astea behar den bezala amaitzeko, gaur 12:00etan udal-txe aurrean txakolin dastaketaz gozatu dute. Dastamena landu ondoren, Solastokian entzumen landuko dute 18:00etan, *Mende*ko Musika emanaldiarekin.

## Iruran lehen kultur tantak

Kultur Astea herenegun jarri zen martxan Iruran. Amaiera berriz maiatzaren 16ean emango zaio.

Atzo euria lagun zutela, KMK-08ko zirkuitua egin zuten goizean. 14:00etan mahaian eseri eta bazkari herrikoia egin zuten. Jokuak ez ziren falta izan egun guztian zehar, kantu eta bertsoen antzera.

Gaur berriz, argazki lehiaketa egingo dute 6 urtetik 16 urte arteko irurarren artean. Argazkiak ateratzeko egun guztia edukiko dute lehiakideek.

Horretaz gain, Senperen (Lapurdi) ospatuko den Herri Urrats euskal jaira joateko gonbitea luzatu dute Irurako Kultur Astearen antolatzaileek.



Iruran herri bazkaria egin zuten eta Berrobin Mus Txapelta Solastokian, beste hainbat ekitaldiren artean. A.I./N.G.

# EAJren «ezkutuko jarrera» salatu dute

**Zizurkil** » Tolosaldeko ezker abertzaleak «Zizurkilen AHTren lanak egiteko zundaketak egin direla» esan zuten.

## A. IMAZ

Tolosaldeko ezker abertzaleak deituta elkarretaraztea egin zuten atzo Zizurkilgo udaletxearen aurrean. Udalean dagoen «EAJren jarrera gogor salatzeko» AHT gaitzat hartuta.

Horretaz gain, ezker abertzaleak AHT Gelditu! Elkarlanak antolatu duen Gelditour ekimenarekin bat egin zuten, etzi Tolosa eta Zizurkil egingo diren ekitaldietan parte hartzeko eskatuz.

## «Zundaketak ezkutuan»

Ezker abertzalearen esanetan, «Zizurkilen iragan astean AHTren lanak egiteko zundaketak egin ziren». Honen berri «herrian inork ez zuela» aipatu zuten; «beste behin ere, udalerrri honetako moralista guztiek herriari bizkar eman diete eta ezkutuan lan horien beste urrats bat eman dute eu-



Tolosaldeko ezker abertzaleak Zizurkilgo udaletxearen aurrean elkarretaraztea egin zuten. ASIER IMAZ

ren sasi demokrazian». Udalte-xean aurkitzen den EAJ egin zuten «ezkutuko» jarrera honen ardurdun. «Herriak, aurrez, inolako informaziorik ez du eskuratu ahal izan bere etorkizuna zuzenean kolpatzen duen proiektu honekiko. Herritarren iritziak ez dituzte inondik inora aintzat hartu» salatu nahi izan zuten Tolosaldeko ezker abertzaleak.

Abiadura Handiko Trena

proiektuaren atzean «EAJren eta PSOEren interes partidistak» aurkitzen direla aipatu zuten: «Interes ekonomiko eta politiko hauek ez diete herri honen bizi iraupenari eta garapenari erantzuten», gaineratu zuten.

Ondoren, «inposaketa, galdeketa eza eta gertaeren ezkutaketa hauek guztiak» salatu zituzten. Baita ere «proiektu txikiak zailak diren aurkako jarrera izate hutsaga-

tik kriminalizazio saiakera guztiak». Amaitzeko, EAJri galdera bat luzatu zieten: «Zeren beldur zarete zuek, etikaren eta moralaren jabeak horiek? Herriaren iritzari beldur al diozue?».

Ezker abertzaleak elkarretaraztea amaitzean, Gelditourraren iritsierarekin eskualdean egingo diren ekitaldietan parte hartzeko deia luzatu nahi izan zuten herritarrei.



Josu Agirre txirrindularia. I. TERRADILLOS

## Josu Agirre txirrindulari tolosarra Italiako Giroa korritzen ari da

## A. IMAZ

Euskaltel-Euskadi taldean lehen urtea betetzen ari da Josu Agirre, Tolosako txirrindulari profesionala. Lehen urte honetan, hasieran arazoak izan baldin bazituen ere, itzuli handi bat korritzeko aukera izango du, atzo abiatu zen Italiako Giroa hain zuzen ere. Berarekin batera 12 euskaldun gehiago egongo dira Italian.



EAEko Fronte Polisarioko ordezkariak ez zuen iristerik izan eta Agurra Adnan Dahi-ri dantzatu zioten. N. GARZIA



Adnan Dahik eta Saadbuh Hamadek Sahararen aldeko plaka agerian utzi zuten. N. GARZIA

## Saharako Fronte Polisarioaren sorreraren 35. urteurrena ospatu dute

**Gizartea** » Saharar herriarekiko elkartasun plakaren berrinaugurazioarekin hasi zituzten atzo jardunaldiak.

**NAIARA GARZIA**

Atzo *Maiatza Borrokan* lelopean Tolosaldea Sahararekin Sahara Bizi elkarteak antolatutako jardunaldiei hasiera eman zitzaizen, Emeterioa Arrese lorategian dagoen elkartasun plakaren berrinaugurazioarekin.

Ekitaldia Aurrekuarekin hasi zen eta ondoren Ana Traperok Sahararen aldeko elkarteko kideak sarrera bat egin zuten, eta Jose

Agustin Arrieta Tolosako udalereko zinegotziak ere hitzaldi labur bat eman zuten. EAEko Fronte Polisarioko ordezkaria Fatma Mohamed Salemek iristerik izan ez zuenez, Adnan Dahi eta Saadbuh Hamad-ek berrinauguratu zuten elkartasun plaka, denei esker onak eman ondoren. Amaitzeko, jubila-tuen egoitzan luntxa egin zuten.

### Saharar herriaren alde

Traperok azaldu zuen bezala, «iaz egin genuen plaka honen inaurerazioa baina margotu eta izurratu egin zuten eta horregatik erabili dugu ekitaldi hau jardunaldi hauei hasiera emateko».

Jose Agustin Arrieta Tolosako zinegotziak saharar herriarekiko

elkartasuna adierazi zuen. «Guk nahi duguna da saharar herriarekin sentiberatasun hori gure artean indartzea, bigarrenik saharar haurrekin eta familiekin elkartasuna ere mantendu nahi dugu». Lotura hori orokorrean Euskadin oso nabarmena dela gehitu zuen Arrietak, baina Tolosaldean bereziki lotura handiagoa zela. «Herri horren nortasuna indartu egin nahi dugu, autodeterminazio eta independentzi bide hori lor dezaten. Aste honetan zehar aldarrikapen garbi eta politiko bat egin nahi dugu». Elkartasun aste honek 10 egun iraunen ditu eta maiatzaren 20an amaituko dira jardunaldiak, udalereko egingo den elkarretaratzeko batekin.



Arratsalde osoan zehar norgehiagokak jokatu zituzten Bidanian. E. EZEIZA

## Labaka sailkatu da final-laurdenetarako

**N. GARZIA**

Atzo Gipuzkoako Lau T'erdiko Txapelketako kanporaketak jokatu zituzten Bidanian eta Aurrera Saiaz 3-ko Eneko Labaka final-laurdenetarako sailkatu zen. Oier Sarastik ere irabazi zuen arren, bigarren buelta amaitu arte itxaron beharko du final-laurdenetarako sailkatzen den edo ez ikusteko.

### Partida ugari

Partida ugari jokatu zituzten atzo Bidanian, izan ere norgehiagoka bakoitzean 4 saio jokatu zituzten, 8

tantotara. Honela, lehenengoan, Aurrera Saiaz 1-ek Real Sociedad 2-ren aurka jokatu zuen. Lehenengo Real Sociedad-ek irabazi zuen (8-3), bigarrena eta hirugarrena Aurrera Saiazek (8-6, 4-0), baita azkeneko saioa ere (2-1). Beraz, 2-1 irabazi zuen.

Aurrera Saiaz 3 (Eneko Labakak jokatu zuen) Bergara 2ren aurka aritu zen eta 2-0 irabazi zuen, eta Oiarpe 1-ek, Arrasate 2ren aurka. Azken honetan Oiarpek 2-0 irabazi zuen. Norgehiagoka hauetatik, beraz, Eneko Labaka sailkatu da.



## Norvegiari buruzko proiektzioa

**LEITZA** » Pello Belauntzarane eta Juan Maritorenak herenegun *Mendiko Eskia Norwegian* izeneko proiektzio emanaldia eskaini zuten Aurreran. 30 lagundik gora elkartu ziren bertan ordu erdi inguru iraun zuen emanaldia ikusteko. Belauntzarane eta Maritorenaren joan den urteko martxoan izan ziren Norvegia iparraldean, Lyngengo Alpeetan hain zuten ere, eta beste 6 lagunekin joan ziren. Herenegun han ateratako argazkiekin egindako muntaia eskaini zuten eta gero txistor-jatea egin zuten. N. GARZIA

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdian bi logelatako etxea salgai, egoera onean, oso merkea. 665 70 86 35.

### LANA

■ **Zaintzailea.** Edadeko pertsonak zaintzeko esperientzi handiko emakume euskalduna eskaintzen

da. Kotxea ere badaukat. Deitu zenbaki honetara: 680 24 42 81.

■ **Iurgina.** Iurgin lanetarako pertsona behar dugu. 658 22 70 58.

### ALOKAIRUA

■ **Baserrira.** Baserrira hartuko gure errentan bi lagunek. 656 70 38 14.

## Eskaintza zabala eta jendetza asteburuko azokan, euria izan arren

PABLO ALBERDI

Euriak ez zuen jendea apaldu Tolosan, azokan erosle asko ikusi baikeenuen goizeko lehenengo orduetik. Eskaintza oso zabala da egun hauetan, eta horrek asko laguntzen du salmentak gora egitera.

Barazki asko izan zen, ilarra, baba eta patata berria nagusi direla. Hauekin neguko barazkiak ere izan ziren. Porruk, azak edo eta azelgak besteen artean. Izan ziren ere udaberriko lehenengo fruituak; marrubiak 3 eurotansaldak.

Aipatzekoa ere da perretxiko zerrenda. Zizak 6 eurotik 35 euroko tartera arte saldu ziren, onddoak 30 euroko inguruan, eta nobedade bezelaserduela, 15 eurotan saldua. Ia 300 kilo ziza izan ziren salgai, eta dirudienez, egun hauetako euriak asko lagunduko die mota honetako produktuei.

### » ATZOKO AZOKA

	Merk.	Gares.
<b>Bertako produktuak</b>		
<b>Perretxikoak</b>		
Senderuela	15,00	-
Ziza	6,00	35,00
Onddoa	21,00	30,00

	Merk.	Gares.
<b>Fruta</b>		
Marrubia	4,00	-
Urra	2,00	3,00

	Merk.	Gares.
<b>Barazkiak</b>		
Baba	3,00	4,00
Babarrun zuria	8,00	10,00
Ilarra	8,00	12,00

## berria

Kazetaritza praktikak egiteko bekadunak hautatzeko probarako deialdia

PROBAREN EGUNAK ETA TOKIAK

### GIPUZKOAN

**Eguna:** maiatzaren 20a  
**Tokia:** Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkea  
**Ordua:** arratsaldeko lauretan.

### BIZKAIAN

**Eguna:** maiatzaren 23a  
**Tokia:** Leioako campuseko BERRITUTAKO ERAIKINA (Reformado) 1. gelan  
**Ordua:** eguerdiko ordu batean

### ARABAN

**Eguna:** maiatzaren 20a  
**Tokia:** BERRIAKO Gasteizko egoitza, Bizenta Mogel 6, behea.  
**Ordua:** goizeko bederatzita eta erdietan.

### NAFARROAN

**Eguna:** maiatzaren 20a  
**Tokia:** BERRIAren Iruñeko egoitza, Iratxeko monasterioa 45, eskuineko eskailera, 13. ezkerre.  
**Ordua:** goizeko 10:00etan.

Probara curriculumak ekarri behar da



Koldobika Jauregi, pasa den ostegunean, Bilbon eginiko agerraldian. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Euskal Herriko garai bateko harri zulatzaileek eta Irango lur zulatuak, biek bat egiten dute Koldobika Jauregiaren obran: artistak urruneko eta hurbileko irudiekin eraikitzen ditu obrak.

# Memoriaren aberatsa, ardatza

IRUNE BERRO (BERRIA)

**E**zer ez da hutsetik sortzen; ezer ez da hutsean desegiten. Edozein gauzak du abialeku bat -egoera, irudi, sentimen, bulkada bat-. Eta edozein gauzak du helduleku bat -egoera, irudi, sentimen, bulkadabat-. Edozein obrak du bide bat. Eta, beraz,

edozein obrak du lotura bat -zentzua ematen dion egoera, irudi, sentimen, bulkada bat-. Koldobika Jauregiaren (Alkiza, 1959) obrek, harrizko eta egurrezko eskulturrek, artistaren oroimena osatzen duten irudiak dituzte oinarrian. «Badago lan guztietan memoria; memoria hori uste baino luze-zabal-sakonagoa izan daiteke: ehun kilometrorra dauden irudiak bil ditzaizke, baita egunerokoan hurbil-hurbil ditugunak ere». Artistak haxela uste du, behinik behin. Jauregik hitzaldia egin zuen pasa den ostegunean Bilbon; bere obrez mintzatu zen artista gipuzkoarra, Bilbo Zaharra Forumak gonbidatuta.

2006ko ekainean Tolosan jarritako hamabost eskultura jarri zituen adibide, 30 urtean egin duen ibilbidearen atal bat aztertzeko.

Artistaren arabera, «ezagutzen dugunaz gain, badugu denok beste memoria bat; hainbat irudik osatzen dute memoria hori, eta askotan ez dakigu zergatik dauden gure baitan, nola jaso ditugun, zergatik mantentzen ditugun». Jauregik irudi katea izaten du obrak sortzeko unean. Batzuk besteen atzetik datozkio. Baina denek dute uste baino harreman estuagoa. Eta zerbaitekin lotura.

Tolosan jarritako harrizko obretako batek, esaterako, zuloak zituen. Zulo horiek sasoi bateko harri zulatzaileekin lotzen ditu Jauregik. Eta ez bakarrik haiekin: zuloz jositako aspaldiko fosil batekin ere bai. Baita Irango lur sail zu-

latu batekin ere. Memoria zabala baita, eta distantzia handiak ere txiki bihurtzen baititu. Edo horretarako ahalmena du, bederen. «Horrek ez du esan nahi obra bat sortzean irudi horiekin guztiekin aurretik jokatzen duzunik; pieza sortzen duzun heinean datozkizu gogora», adierazi du artista alkizarra. «Obra egin ahala konturatu zenez zera zer gauza dituzun barnean».

Tolosako parke batean paratutako beste obra batean, eskailera sortu zituen Jauregik. Egiteko unean, Txinako harrizko mendi batean eginiko eskailera amaigabeekin gogoratu zen artista. Besteak beste.



«Badago lan guztietan memoria bat, memoria hori uste baino luze eta sakonagoa izan daiteke»

KOLDOBIKA JAUREGI  
Artista

### Paisaiaren metamorfosia

Kantu ixila izan du izenburu artistak egin duen azken erakusketako batek. Zuberoako herri kantetan oin hartu zuen obrak sortzeko. «Kantu horiek letrarik ez dute, arztzainek abesten dituzte, eta belaualdirik belaualdi irauan dute. 30 urte daramatzazun lanean, errepikatzen aurrak dago; adibidez, obrak dimentsio berekin egiteko beti». Kantu horiek bezalako eskulturak egitea erabaki zuen Jauregik. «Aurretiko gidoirik gabe, proportzioak aurrez zehaztu gabe». Leioak eta kaikuak sortu zitzaizkion, «egunerokoan erabiltzen ditugun objektuak». Arteak egunerokotik edan behar baitu, artistaren ustez. Lotura izan behar du. «Bestela alferrik da». Ezin da bereizi artea eta eguneroko bizitza, Jauregiaren irudiko. «Bia bat dira».

Figuraziotik abstrakzioarako bidea egin du azken urteetan. Baina Jauregi abstrakzioan figurazioa ere badago. «Paisaiaren metamorfosian» sinesten du Jauregik. Errealitatea behatzeko eta irudikatzen beste molde batean. Lesio baten ondorioz deskubritu zuen, duela hamabost urte. «Esna ematen nituen gauak, eta konturatu nintzen egunez eta gauzez eskulturak ez direla berdin ikusten. Gauak berak metamorfosia dakarrela jakin nuen; erritmoa mantsotzen du eta gogoeta bultzatzen». Naturak pertsonengan duen eragina senti daiteke, orain, artistaren ederlanean.

## E Elkarrizketa

PATXI URIZAR › Duatloilaria

**Villabona** » Goi mailan aritzen da Patxi Urizar duatloian; aurten bigarren aldiz jarraian distantzia luzeko Euskadiko Txapelketa eskuratu du billabonatarrak.



I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Patxi Urizar (Villabona, 1974) denboraldi ona egiten ari da. Besteak beste, eta ia zkoa errepikatuz, distantzia luzeko duatloian Euskadiko txapelduna da. Orain hiru urte azpitxapelduna izan zen.

**Espero zenuen txapelduna izateko berriro?**

Banekien ondo ibiliko nintzela. Zalantza pixkat neukan, Espainiako Txapelketan nire bizikleta hautsi bainuen eta ordezko bizikletarekin atera behar izan nuen. Gero, lasterketa gogorra da, baina duda hori banuen. Bestela, fisikoki ondo nengoan.

**Hiru parte izaten ditu lasterketak: hasieran korrikan, gero bizikletan eta bukatzeko berriro korrikan. Hiru uretan aurrean izan zinen.**

Lehenengo partean boskote bat joan ginen. Gero bizikletan mendate gogor bat zegoen eta ordura arte hiru gindoazen batera. Gero mendatean atera nuen distantzia pixka bat eta azkeneko zatian, pixka bat fidatu-edo egin nintzen eta bigarrena asko gerturatu zitzaidan. Ia biok batera iritsi ginen helmugara. Nik bukaeran beste puntuko bat neukan eta hortxe irabazi nion.

**Ez zenuen espero, beraz, bigarrena hainbeste gerturatzea azkeneko zati horretan.**

Bizikletan azkeneko uanean, bi kilometro falta zirela, gurutzatu egiten ginen eta nik ikusi nuen minutu bat baino gehiagoko alde neramala eta agian horrekin fidatu egin nintzen. Gero egia da bestea ere oso indartsu zetorrela.

**Abantaila hartzeko bizikletaren zatia erabiltzen duzu.**

Normalean bai. Igoera bat baldin badago ondo etortzen zait. Ibilbidearen arabera ere izaten da hori.

**Korrikan ere defendatzen zara, noski.**

Bai, mantendu egiten dugu abantaila, baina gehienbat aurrera jotzeko bizikletaren parte erabiltzen dut.

**Duatloian hasi zinenean espero zenuen maila honetara iristea?**

Urte asko daramatzat honetan eta beti ere urtero pare bat proba irabazten dituzu. Hor aurrean ibiltzea espero duzu eta irabaziz gero gustura, noski. Duatloian hiru zati ezberdin direnez, askotan horietako batean huts egiten baduzu, lasterketa hor galtzen da.

**Espainiako Txapelketan ere parte hartu zenuen. Nola joan zen?**

Bizikleta hautsi nuen lasterketan

# «Gazte asko ez da ikusten duatloian; ez dago ohitura handirik»



HITZA

**Euskadikoan, azkeneko zatian pixka bat fidatu nintzen eta bigarrena asko gerturatu zen**

**Bi kirol ezberdin egiteak eragin txarrik badu, baina gorputza aldaketetara ohitzea da kontua**

bertain. Nahiko ondo nihoan, baina bizikletaren zatiaren azkeneko uanean hautsi zitzaidan eta erretiratu behar izan nuen.

**Eta zer hautsi zen?**

Bizikletaren koadroa hautsi zen. Nahiko arraroa izan zen, bizikleta berria baitzen.

**Atsekabea handia hartuko zenuen.**

Egia esan bai. Mementoan bai. Aurretik zortziko talde bat zegoen eta gero beste hamabosteko talde bateko egongo ginen. Beraz, 20 lehenengotan egiteko-edo aukera banuen.

**Txapelketa horretan lehenengo postuetan amaitzea ez da batere erraza izango.**

Korrikan maila oso altua dago. Aurteko urtean bederatzigarren egin nuen, baina bizikletaren ibilbidea gogorxeagoa zen eta nik aprobetxatu ahal izan nuen hori. Ibilbidea nolokoa den eragina du.

**Aurrera begira zer txapelketa dituzu?**

Euskal Herriko zirkuituko proba batzuk daude eta horiek egingo ditut eta gero udan Frantzia egiten den Val de Aran distantzi luzeko duatloi famatu batean parte hartzen dut. Pirinioetan egiten da eta hori mendate gogor batzuk igotzen dira.

**Bizkaian badaude diru gehiago duten klubak, baina Gipuzkoan antzeko maila dago**

**Duatloia kirol herrikoa da; badaude Espainia mailan bekak dituztenak, baina gutxi batzuk dira**

**Lehenengo aldiz izango da?**

Ez, hiruzpalau urte badaramatzat parte hartzen.

**Eta zer emaitza lortu dituzu?**

Azkeneko bi urtetan laugarren egin dut. Orain dela hiru bosgarren egin nuen. Hortxe ibiltzen naiz, ez dudala lortzen podiumera sartzea. Ea aurtengoan posible den.

**Duatloia bi kirol ezberdin izanik, sakrifizio asko eskatzen du? Nola izaten da prestaketa?**

Normalean eguerdian ordu eta erdi izaten dut entrenatzeko eta bizikletan aritzen naiz. Gero arratsaldetan korrikan ibiltzen naiz.

**Kirol batek bestean eragin txarrik badu?**

Pixka bat bai. Askotan bizikletan ibili eta gero, hankak gogortuta berriro korrikan hasetea... Baina, beno, hori, dena bezala, ohitura hartzea da eta entrenamendua egitea. Azken batean, gorputza ohitzen da aldaketa horietara.

**Donostiako klub baten izenean lehiatzen zara.**

Tolosakoa ere badago, baina nik Donostian egiten dut lan eta han ere asko entrenatzen nuen eta eza-gun batzuren bitartez han sartu nintzen. Oraindik bertan jarraitzen dut.

**Klub bezala hobea al da?**

Bizkaian badaude diru gehiago duen talde batzuk, baina nik uste dut Gipuzkoa mailan denok paretsu gabiltzala.

**Dirua aipatu duzula, duatloiak ez du ematen bizitzeko adina, ezta?**

Ez, ez, hau dena herrikoa da. Badaude batzuk Espainia mailan bekak dituztenak eta publizitatea etxe batzurrekin, baina oso gutxi dira.

**Nola dago duatloian etorkizuna? Ikusten da atzetik badatozela kirolari gazteagoak?**

Egia esan gazte jende asko ez da ikusten. Nik uste dut hemen gabiltzen gehienak beste kiroleratik gertuak garelako, bizikletan ibili dena edo korrikan ibili dena aurretik. Gazte jendea ikustea zaila da. Hemen ez dago ohitura handirik. Gehiago ikusten da bizikletan ibiltzen direla. Eta triatloian ere uste dut antzeko gauza gertatzen dela.



17°  
12°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	17°
HOTZENA	13°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Irigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldekoste beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Kultur asteak

■ **Berrobi.** XXIII. Kultur Astea:  
12:00etan txakoli dastaketa uda-  
letxe aurrean eta 18:00etan *La  
musica del siglo* emanaldia Solasto-  
kian.

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Hilaren 17an ospatuko  
den Txapin festa bazkari herriko-  
rako txartelak salgai daude 10 eu-  
rotan Raku, Orbela, Meskal nahiz  
Denak tabernetan.  
■ **Tolosa.** Ziklomotoaren azterke-  
ta egingo dute Ferialekuan hilaren  
26an eta 27. Txanda eskatu behar  
da Udaltzainguan (943-675858  
telefonoa).  
■ **Villabona.** Biltoki jubilatutako elkar-  
teak Iratxera irteera antolatuko du  
hilaren 15erako. Izen-ematea, elkar-  
tean 15 eurotan

### Zinema

■ **Tolosa.** *Franklin eta lakuko altxo-  
rra* filma euskaraz emango dute  
Leidor aretoan 17:00etatik aurre-  
ra.  
■ **Tolosa.** *10.000* filma emango  
dute asteburuan Leidor aretoan:  
gaur 19:30ean eta bihar 20:30ean  
(ikuslearen eguna).  
■ **Tolosa.** *Cometas en el cielo* filma  
emango dute asteburuan Leidor  
aretoan: gaur 22:00etan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

#### GAUR

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo ka-  
lea, 2. 943 670128.  
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar  
kalea, 43. 112.

#### BIHAR

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3.  
943 670915.  
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea,  
7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen  
egunkariaren adierazitako esanien  
eta iritzien erantzunik.

Atzo hasi ziren herri kirol erakustaldiarekin Ibarra, Izaskun auzoko jaiak. Irigoien eta Goenatxo harri-  
jasotzen; Otaño eta Otaegi aizkoran eta Rezabal-Roteta eta Garmendia-Iraola trontzan aritu ziren.

# Auzo kuttuneko jaiak hasi dira



Irigoien eta Goenatxoren erakustaldia. ASIER MAZ



Lau trontzariak lehia polita eskaini zuten Izaskunen. ASIER MAZ

## A Agurrak



### Zorionak!

**Iosune, Iokin eta Ugaitz.** Gaur losuneren urteak. Bihar, urtebete ezkondu  
zirela eta etzi Ugaitzen urtebetetzea. Ondo pasa etxekoan partetik.



### Urte askoan!

#### Eneko Lopez Etxenagusia

(Tolosa). Gaur 7 urte. Aitona,  
osaba eta etxeko guztien partetik.



### Urte askoan!

#### Lexuri Aizpurua De Paz (Asteasu).

Bihar 3 urte, zorionak familiaren  
partetik. Muxu mordo bat!

### ASIER MAZ

Izaskun auzoko jaiak atzo hasi  
ziren Ibarra, indartsu hasi  
ere. Jaien lehen egunean har-  
ri-jasotzaile, aizkolari eta trontza-  
lariak erakustaldi polita eskaini  
zuten.

### Gaur, asto-lasterketa

Gaurkoan, asto-lasterketa  
18:00etan hasiko da Izaskunen  
baina lehenago, 12:00etan, herri  
kirol erakustaldia egingo da, Ur-  
nieta-Izaskun lehia jokatu delar-  
rik. Ondoren herri bazkaria egingo  
dute, Andoni Egaña eta Amets Ar-  
zallus bertsolariekin.

Asto lasterketa amaitean, pin-  
txo eta sagardo dastaketa egingo  
da, herriko trikitilarien doinuekin.

### Bihar, jaien amaiera

Azken egunean, 10:00etan diana  
egongo da. 11:00etan meza eta  
12:00etan hamaiketako. Sebas-  
tian Lizaso eta Jexuxmari Irazu  
bertsolariak 13:00etan eta  
18:30ean arituko dira kantuan. Bi  
saioen tartean Alurr dantza talde-  
ak emanaldia eskainiko du,  
17:00etan hain zuzen ere. Jaiak  
amaitezko 19:00etatik aurrera  
erromeria egongo da.

berriak 5 urte

Zatoz  
gurekin ospatzera!

Eskualdez eskualdeko ekitaldiak

- BERRIAK 5 urte. Bidea
- Hitzaldia. Aurrera begirako erronkak
- Mokadua

### TOLOSALDEKO EKITALDIA

Maiatzak 14, asteazkena, 20:00etan  
Tolosako Kurtur etxean

berria  
luzatu bostekoa

luzatu bostekoa

luzatu bostekoa

luzatu bostekoa

luzatu bostekoa

luzatu bostekoa

luzatu bostekoa

luzatu bostekoa

luzatu bostekoa

luzatu bostekoa

luzatu bostekoa